

Aresti jaio zela 75 urte

Bizi al zara Gabriel?

Haurrak lehenengo negarra egin du. Bilbo, urriak 14, 1933. Gabriel jarriko diote izena gurasoek eta, oraindik ez dakiten arren, poeta izango da. Gainera jaustekoa zaien Francoren diktadurapeko euskal poeta handiena beharbada. 75 urte joan dira lehen malako haietatik.

Aresti 1975ean hil zen. Horregatik jarraitzen dugu bizi ote den galdezka.

GORKA BEREZIARTUA

ERREPORTAJE HONEK EZ DU hil kanta izan nahi, ez garai zaharren nostalgia, ezta efemeride baten aitzakian betetako orri sorta ere. Biografia bat kontatzea baino, Arestik gaur egungo irakurle eta idazleengan daukan itzalaz jardutea egokiago iruditu zaigu. Literaturaren historia arotan eraikitzen bada, aro berri bakoitza etxe-aldaketa

Lagun artean ageri da Gabriel Aresti argazkian. Bere biografiaren azalean eta hainbat karteletan erabili dute foto bera ondoren.

baten tankerakoa da; eta denok noizbait frogatuko genuenez, liburuak izaten dira edozein traste-garraioren biktima kutunak. Ezinbestekoa ez dena, nahita edo nahi gabe, ahaztu egiten da. Beraz: ahaztu egin al dugu Aresti, aitaren etxe zaharrean? Alokairuan daukagun pisu berri honetara ekartzen asmatu al dugu?



SUSÁ

Erantzunen bila Angel Zelaie-tarengana jo dugu. Berea da Gabriel Arestiren biografia, 2000. urtean Susa argitaletxeak kaleratua. Derioko Seminarioan ikasten ari zeneko garaietara eramaitu gaitu solasak: sinadura bat zen Gabriel Aresti, luma madarikatu bat, ikasle euskaltzaleen artean interesa pizten zuena. Zelaieetak Juan San Martinen bidez ezagutu zuen izenaren atzean zegoen gizona. Uda batez izan zen, Eibarren. Aresti han ari zen lanean eta afaltzera joan ziren hirurak. Afalostean Lambretta batean eramaitu zuen poeta Zelaieeta gazteak. “Oso pakete gaiztoa zen, nonbait bizikletan gutxi zekien”. Menderakaitza, baita motor gainean ere.

Gaurko beturrekoak jantzita, Zelaieetak Aitor eta Pedro Zubero goitiaren *Bertan Bilbo* (Bilboko Udala, 2008) liburua zabaltu du. XX. mendeko historia ardatz duen lan horretan Bilbo eta euskara besarkatuta ageri zaizkigu; hiria eta hizkuntza estu elkartzen ari diren besoen artean, noski, Arestirenak. Bilbori euskaraz idatziz zion, kale kaletik, eta bidea urratu zuen atzetik etorri diren bilbotar euskaldunentzako. “Ez hori bakarrik. Arestik Bilbo euskalduntzen lagundu zuen, baina gehiago ere bai: euskaldun moduan eramaitu dute bera ere edozein lekutara” dio Zelaieetak. Iruñeko Biurdana institutuan aurtu poetaren omenez ospatu dute eguna ere nabarmendu du. “Edozein tokitan, une honetan, Aresti ondo sartzen da”.

Baina jakina da bilbotarra ez zela mundu guztia ados jartzen zuen pertsona —ezta nahi ere—; horregatik, bizi izan balitz noren alde lerratuko zen galdetu diogu Zelaieetari: frontean, borrokan egongo litzatekeela uste du, “ez ezkutaturik, ‘literatura literatura da’ edo ‘lanean denbora asko behar dut’ esanez”. *Hierro* egunkarian argitaratu zituen artikuluak gomutatuz, kultur gaietan bere iritzia ematen ariko zela uste du; eta politikan, orduko antzera, ez zela sigla batzuen pean mugituko. “Ez dut uste” dio Zelaieetak “horrelakoa zen”.

Ereindako harriak fruitua ematen du

Urteak gorabehera, Angel Zelaieeta Arestiren belaunaldi berekotzat jo dezakegu.

Biografia braillez eta hainbat ekitaldi

Urteurrenarekin batera braillez irakurtzeko moduan jarri dute Arestiren biografia. ONCEko Inma Arrieta arduratu da horretaz. “Braillez irakurtzen duen jende gutxi dagoenez, saiatzen gara eurek behar duten guztia itzultzen” azaldu du. Euskaraz argitaratutako liburuen artean brailera pasa den aurreneko biografia da hau, eta euskarazko liburu batean aurreneko aldiz, irakurtzeko zulo-hutsuneak orriaren bi aldeetatik egin dizkiote. Bolumen apur bat kendu diote horrela. “Ikusten duzu tintazko liburu nola koka den?” galdetu digu eta Zelaieetarena liburuak iruditu zaigu alboko braillezko orri mordoarekin alderatuta “bada, biografia osoa horrelako lau liburuki dira”.

Biografia mundu guztiak irakurtzeko moduan jartzeaz gainera, Arestiren jaioztaren 75. urteurren honetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte poetaren omenez. Urriaren 14an Bilboko Bidebarrieta liburutegian Erika Lagomak eta Uxue Alberdik bere bertsoak abestuko dituzte; Hedoi Etxartek eta Igor Estankonak berriz, poemak errezitatuko dituzte. Egun berean Larrabetzuko Hori Bai gazte-txean Gabriel Arestiren poesiaz jardungo du Koldo Izagirrek eta Joseba Tapiak haren kantuak abestuko ditu.



Inma Arrieta Arestiren biografia eskuetan.

Horregatik hurrengo sabelaldiko poeta batengana ere jo dugu Arestiz galdezka. *Harri eta herri*-ko poemak idazle lanetan aurreneko urratsak ematen ari zela harrapatu zuten Jose Luis Otamendi azpeitiarra. Formazio urteetan irakurritako liburua izanda “debozio bereziarekin” hartu zuen, Artzerenak, Azurmendirenak edo Miranderenak ere hartu zituen legez.

Urte batzuk joan dira hastapen haieetatik. Mundua aldatu da, poesia kanbiatu, Otamendi bera ere bai; horregatik gaur egun Arestiren poemak irakurri eta zer sentazio izan duen galdetu diogu. Ea poesia paper gaineko tinta bihurtu den, mailu bat izaten jarraitzen al duen. Bilbotarraren lanetara sarrago itzuli nahi lukeela azaldu du, *Harri eta herri* berriro esku artean hartuta “gutziz sinagarria” iruditu zaiola. Koldo Izagirrek liburuaren azken edizioari egindako hitzaurrera bideratu gaitu ondoren: han esaten denez, bizitzaren eta literaturaren arteko muga haustea lortu zuen bilbotarrak. Otamendiren ustez horretara iristen den idazle batek, beharbada eternitatea ez, baina luzaroan irauteko arriskua du. “Arestiren karga humanoak hurbilarazten zaitu; testuinguru historikoa aldatuko da, baina sakonean esaten dizuna oso erraz iristeko modukoa da”.

Arestik hurrengo belaunaldian lur gozoa aurkitu zuen bere harria ereiteko. Eta erlojuaren buelta batzuekin mugarrira jaio zen. “Zordun garbiak gara” dio Otamendik “Arestik beste Euskal Herri baterako oinarriak jartzen ditu: idazle erdaldun bat, Bilbon jaioa, ari zaigu ez den, edo bere burua denik ere ez dakien herri batekin amets egiten”.

Post-Aresti

Poetak —sortzaileak oro— ez dira hiltzen inork gogoratzen dituen bitartean. Baude laire edo Whitman biziago daude literaturazaleen memorian azken eztula egin ez duten hamaika poeta baino. Aresti, ikusi dugu, belaunaldikoen gogoan da, atzetik etorri zen generazioaren aitortza du. Jakitea falta

zaiguna zera da: idazlearen heriotza fisiokoaren ondotik jaiotakoek ba al dakite nor den? Zer garrantzia eman diote?

Etxeke apaletan begiratu azkarra botata arrapostua ukan dezakezu. Ariketa sinplea da: 1970 eta 1980ko hamarkadetan jaiotako euskal poeten liburuak hartu esku artean, hostokatu itzazu. Bost minutu baino lehen Arestiren erreferentziaren bat aurkitzen ez baduzu—edo horrelako ariketarako gogo faltan bazabiltza—guk lagunduko dizugu.

Belaunaldi post-arestiarreko idazleek aldarrikapen berrietarako erabili dute hark sortutako sinbologia: etxebizitzaren arazoaz hitz egiteko erabili zuen adibidez Urtzi Urrutikoetxeak. *Anzokak*-en (Susa, 2005) gazte batzuk azaltzen dira pintadak egiten. Horietako batek honela dio: “Nire aitaren etxea defendatuko dut, ze nirea daukadanerako... Gabriel: lehen hobea zen etorkizuna”. Asmo diferenteko berrirakurketak ere egin dizkiote, batzuetan zeharka ukituz—*Jainkoa harrapatzeko tranpa* (Pamiela, 2007) liburuan Jon Gerediagak Zorrotzako portuko Anton eta Gilen aipatzen dituen bezala—, besteetan motibo propio batean txertatuz—Aritz Gorro-



SUSA

txategik *Zaldi bustuak* (Erein, 2007) liburuko kapitulu bati *Harrizko zaldi hau jarri dio—*; arazoia eman dio Ignazio Aiestaranek, *Muntro abertzalea* (Elkar, 2003) liburuko *Harrijasotzaile-berrijasotzaile* poemari; Kirmen Uribe Marcel Duchampekin xakean jokatzeko jarri du *Bitartean beldu eskutik* (Susa, 2001) liburuan; eta bada hil zela ukatzen (edo) duenik ere: *Gabriel Aresti bizirik da* zioen Beñat Sarasolak *Kaxa burs bat*-en (Susa, 2007), bere gaur egungo jarrera politikoaz espekulatzearekin batera. Helduleku ugari, poeta bakarra-arentzako.

Pentsatzekoa da jatorrizko tesuingurutzetik urrundu ahala Arestiren poesiaren berrinterpretazio, transformazio eta—zergatik ez—prostituzio berriak sortzen joango direla. Lekuko izango gara. Erreportaje hasieran jaiotzen ikusi dugun haurra euskal letra modernoan aitona bihurtu da, bilobek egiten dizkioten bihurrikeriei irribarrez. Bizi ote den galdetzen genuen hasieran. Ez, Aresti ez da bizi. Guk bizi dugu. ■

www.argia.com/bideoak

helbidean, Arestiren urteurrenari buruzko bideoa.

EUSKARAREN
MARATOIA 7

Lasarte-Oria 2008ko urriaren 18a eta 19a

Korritzeko modukoa!

LASARTE-ORIANO UDALA

Ttakun

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

www.euskararenmaratoia.com